

## XIRIAKO ANDONEGI I. LITERATUR SARIKETA

Lehiaketa honetan parte hartzeko hurrengo **baldintzak** bete behar dira:

### **1. Euskaraz idatzita egon behar da, eta originala eta argitaratu gabekoa izan behar du.**

Beste lehiaketaren batean saririk jaso duten lanek ezingo dute parte hartu.

### **2. Gaia librea da.**

Gutxienez hiru orrialde eta gehienez, hamar izango ditu.

Ordenadorez idatzirik egon behar du: *Arial* edo *Times New Roman* erabilia, eta 12 neurrian, bi espaziotara eta orrialde bakarretik idatzita egon beharko du.

Lan bakoitzaren hiru ale bidaliko dira.

### **3. Hurrengo sariak egongo dira:**

- Lehenengo sari bat: 18 urtetik gorakoentzat.
- Bigarren sari bat: mutrikuar onenarentzat.
- Hirugarren sari bat: 16 - 18 urte artekoa.

### **4. Aurkezteko modua: posta arrunta edo elektronikoa.**

a) Posta arruntez egiten bada, idazlanak izenburua eta egilearen goitizena eramango du agerian eta idazlearen izena ezin izango da inon aipatu.

Idazlanarekin batera, gutun-azal itxi bat bidali beharko da, kanpoaldean idazlanaren izenburua jarrita, eta barrualdean, egilearen izen-abizenak, goitizena, adina, helbidea, korreo elektronikoa, telefonoa, sinadura eta NANaren fotokopia.

b) Posta elektronikoz egiten bada, mezu bat bidaliko da eta bi fitxategi erantsiko dira, bat idazlana eta goitzenarekin eta beste bat egilearen datuekin.

### **5. Epaimahaia Mutrikuko Udalak izendatuko du**

Bere erabakia itzulezina izango da.

**6. Sariak eman gabe utzi ahal izango dira.**

**7. Lanak aurkezteko epea azaroaren 24a izango da.**

**8. Aurkeztutako lanak ez dira bueltatuko.**

**9. Hiru sari egongo dira:**

- Lehenengo saria: 600 €
- Mutrikuar onenarentzat: 200 €
- 16 – 18 urte artekoa: 100 €

**10. Idazlanak helbide honetara bidali beharko dira:**

a) Mutrikuko Udala  
Kultura Saila.

Xiriako Andonegi ipuin lehiaketarako dela adierazita  
Txurruka plaza z/g 20830 Mutriku – Gipuzkoa

b) [kultura@mutriku.net](mailto:kultura@mutriku.net) helbidera